

Erabilgarria



11

2025eko apirila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak


Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia
Erkidegoko
gizarte-aurreikuspen
osagarriaren
behatokia**



OGASUN ETA FINANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
FINANZAS



Euskadiko BGAEn zifra nagusiak 2024an

2024. urteari buruzko behin-behineko datuek erakusten dutenez, EAEko BGAEn bazkide diren pertsonen kopurua (bikoiztasunik gabe) 863.146ra igo zen, hau da, 7.234 pertsona gehiago daude 2023rekin alderatuta (+% 0,8). Bazkideen erdiek banakako plana dute (% 51,5), baina enplegu-sistemak garrantzi handiagoa du ondareari dagokionez (% 55,1). Aurreikuspen-planak dituzten BGAEn egindako ekarpenen bolumena 880 milioi eurokoa izan da 2024an (844 milioi euro 2023an) eta prestazioak 735 milioi euroraino iritsi ziren (692 milioi euro 2023an). Enplegu BGAEn kobratutako errentaren hileko batez besteko zenbatekoa 783 eurokoa izan zen.

[Informazio gehiago](#)



Eusko Jaurlaritzak Euskal Finantza Aliantza sustatu du

Lehendakaria buru dela sinatu da bederatzi finantza-erakunderekin (Euskal BGA Federazioa, BBVA, Laboral Kutxa, Kutxabank, BBK Fundazioa, Vital, BasqueFik eta Elkargi) "funtsak, tresnak eta finantza-ahalmenak batzeko" protokoloa. Finantzen Euskal Institutuarentzako hasierako zuzkidura 1.000 milioi eurokoa izango da, haren inbertsio-ahalmena indartu dadin. Baliabide horiek Euskadiren eraldaketa ekonomikoari lotzen zaizkion finantza-inbertsioak egiteko soilik erabiliko dira, batik bat teknologia- eta industria-sektorerako eta eraldaketa horrek eskatzen dituen azpiegitura zientifiko eta energetikoetarako. Era berean, ekintzailetzaren sustapenean eta industria eta ekonomia berrien sorreran lagunduko dute.

[Informazio gehiago](#)



Euskal Herriko "Sutearo Elkarri Laguntzeko Erakundea BGAEn" sortu da

Sutearo nagusiek (baserriek arrazoi naturalengatik (suteak, txingorra, haizea, etab.) jasan ditzaketen kalteei aurre egiteko sortutako BGAEn) "Sutearo Elkarri Laguntzeko Erakundea, BGAEn" eratu dute. Erakundea elkarrekiko lankidetzan oinarritzen da, eta bere helburua baserrien arteko elkarrekiko laguntza da, goian adierazitako kontingentziek eragindako kalteak konpontzeko. Erakundearen barneko lurralde-antolaketa ermandadeen bidez egituratuko da, tradizio historikoari eutsiz, hau da, udalerri jakin batean edo, hala badagokio, udalerri mugakidean kokatutako eraikinak eta/edo ondasunak babestea xede duten antolamendu-unitateen bidez, Estatutuetan araututako baldintzetan.

[Informazio gehiago](#)



I. DISPOSICIONES GENERALES

JEFATURA DEL ESTADO

26917 Real Decreto-ley 11/2024, de 23 de diciembre, para la mejora de la competitividad de la pensión de jubilación con el trabajo.

Dentro del marco del Pacto de Toledo y del diálogo social, el Real Decreto-ley 11/2024, de 23 de diciembre, de medidas urgentes para la mejora de la competitividad de la pensión de jubilación con el trabajo, y el establecimiento de un nuevo marco de sostenibilidad del sistema público de pensiones, dio cumplimiento a la última parte de los informes que integran el Componente 30 –sostenibilidad a largo plazo del sistema público de pensiones en el marco del Pacto de Toledo– del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, reformas que se iniciaron en 2021 con la Ley 12/2021, de 28 de diciembre, de garantía del poder adquisitivo de las pensiones y de otras medidas de refuerzo de la sostenibilidad financiera y social del sistema público de pensiones, y que siguen con la Ley 12/2022, de 30 de junio, de regulación para el impulso de los planes de pensiones de empleo, por la que se modifica el texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones aprobados por el Real Decreto Legislativo 12/2002, de 29 de noviembre, y con el Real Decreto-ley 13/2022, de 28 de julio, por el que se establece un nuevo sistema de cotización para los trabajadores por cuenta propia o autónomos y se mejora la protección por cese de actividad.

Como colofón, para reforzar la sostenibilidad social y financiera del sistema el citado Real Decreto-ley 11/2024, de 23 de diciembre, contempla tres tipos de actuaciones que

Abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretua indarrean sartu da, erretiro aktiboa, partziala eta atzeratua aldatuz

Berritasun nagusien artean: erretiro aktiboa lan-ibilbide laburragoekin eskuratzeko aukera ematen du, erretiro aktiboan zehar pentsioa kalkulatzeko modua aldatzen du (erretiro-adin arruntera iritsita pentsioa atzeratu den denboraren arabera doitzen da) eta pizgarri gehigarriak ezartzen dira erretiro aktiboan lan egindako urte gehigarri bakoitzeko. Txanda-kontratudun erretiro partzialari dagokionez, erretiroa hartzeko legezko adina baino 3 urte lehenago egin ahal izango da (lehen 2 urte lehenago), eta txanda-hartzailea mugarik gabe eta lanaldi osorako kontratatatu beharko da. Atzeratutako erretiroan, atzerapenaren bigarren urtetik aurrera, hobekuntzak igarotako sei hileko bakoitzeko egingo dira, urte oso bakoitzeko egin beharrean.

[Informazio gehiago](#)

INFORME DE EVALUACIÓN DE LA REGLA DE GASTO DE PENSIONES

INFORME 2/25

31 de marzo de 2025



Autoridad Independiente
de Responsabilidad Fiscal

AIReF pentsioen gastua onartu du, baina sistemaren iraunkortasunaz ohartarazi du

Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteak (AIReF) pentsioen gastu-arauari buruz argitaratutako txostenaren arabera, pentsioen gastuak jasangarritasun-muga betetzen du, eta batez besteko gastu garbia BPGren % 13,2an kokatzen du 2022 eta 2050 bitartean. Horrek esan nahi du hamarren bat beherago dagoea muga gisa ezarritako mailatik (% 13,3), eta, beraz, ez da beharrezkoa neurri gehigarriak hartzea. Hala ere, agintari fiskalak ohartarazi du jasangarritasuna ez dela hobetu, eta pentsioen gastua 3,4 puntu haziko dela 2050era arte. Agintaritza independenteak argitaratutako lehen ebaluazioa da, eta hiru urtean behin pentsio-erreformak Estatuan duen eraginari buruzko informazioa eman beharko du.

[Informazio gehiago](#)



LIBRO VERDE SOBRE FINANZAS
SOSTENIBLES EN ESPAÑA



Gobernuak Espainiako Finantza Jasangarriei buruzko Liburu Berdea atara du

Sektore pribatua finantza jasangarrien esparrura egokitzea bultzatzeko eta bide horretan laguntzeko, Finantza Jasangarriei buruzko Liburu Berdeak zortzi ekintza proposatzen ditu: 1) Jasangarritasun-sandboxa, finantza jasangarrien esparruaren aplikazioa optimizatzeko; 2) Ezagutza-gordailua eta jardunbide egokien zabalkundea; 3) ETEen eraldaketa bideratzeko eta bultzatzeko gida sektorialak argitaratzea; 4) Finantza-produktu berdeak sortzea; 5) Finantza jasangarriak EBren finantza-hezkuntzako eskumenen esparruan sartzea; 6) ICO Berdean finantza daitezkeen proiektu jasangarrien zerrenda positiboa egitea; 7) Altxorren bonu berdeen programa; eta 8) Finantza Iraunkorren Kontseilua sortzea.

[Informazio gehiago](#)



Inverco: pentsio-funtsen 2024ko balantzea eta 2025eko aurreikuspenak

Espainiako Pentsio Funtsen ondarea handitu egin zen 2024an, eta urtea 131.833 milioi euroko bolumenarekin amaitu zen (+% 7,7 2023ren aldean). Plan Individualen ondarean izandako gehikuntza zorroen errealizazioei zegokien, eta ekarpen garbi negatiboak konpentsatu zituzten (615 M €). Bestalde, enplegu-planek ekarpen garbi positiboak izan zituzten (170 M €), batez ere autonomoen enplegu-plan sinplifikatuen eta plan sektorialen ondorioz. Horrela, 2024an, Enplegu Plan sinplifikatuak 42 dira guztira, 388 milioi euroekin eta 674.336 partaideekin. 2025erako aurreikuspenen arabera, pentsio-funtsen ondarea % 1,6 handitu daiteke, eta urtea 134.000 milioi euroekin itxi.

[Informazio gehiago](#)



EBko herritarren % 20k soilik adierazi du enplegu-plan bat duela

EIOParen arabera, EBko biztanleriaren zahartzeak pentsio publikoetan presioa egiten jarraituko du. Gaur egun, pentsiodun bakoitzeko ia 3 pertsona daude lan egiteko adinean, baina kopuru hori 2 baino gutxiagora murriztuko da datozen 50 urteetan. Pentsio osagarriek pentsio-sistema publikoen defizita murriztu dezakete, herritarrei erretiro-sarrera egoki eta iraunkorrak eman diezazkiekete eta EBko ekonomiaren finantzaketa bultz dezakete. Hala ere, pentsio osagarrietan biztanleriak duen partaidetza, azken bi hamarkadetan handitu bada ere, ez da nahikoa: EBko herritarren % 20k soilik adierazi dute enplegu-plan bat dutela, eta soilik % 18k dute plan pertsonal bat.

[Informazio gehiago](#)



Brussels, 26.2.2025
SWD(2025) 80 final

COMMISSION STAFF WORKING DOCUMENT

Proposal for a DIRECTIVE OF THE EUROPEAN PARLIAMENT AND OF THE COUNCIL amending Directives 2006/43/EC, 2013/34/EU, (EU) 2022/2464 and (EU) 2024/1760 as regards certain corporate sustainability reporting and due diligence requirements

Proposal for a DIRECTIVE OF THE EUROPEAN PARLIAMENT AND OF THE COUNCIL amending Directives (EU) 2022/2464 and (EU) 2024/1760 as regards the dates from which Member States are to apply certain corporate sustainability reporting and due diligence requirements

EBk jasangarritasunari buruzko alderdi batzuk arrazionalizatzea proposatu du

Ezegonkortasun handiko une honetan, eta EBren lehiakortasuna, oparotasuna eta erresilientzia bultzatzen laguntzeko helburuarekin, Europako Batzordeak zenbait tresna proposatu ditu (Omnibus proposamena). Bereziki, Batzordeak honakoa proposatu du: iraunkortasunaren arloko informazioaren aurkezpena, behar bezalako diligentsia eta taxonomia arrazionalizatzea eta sinplifikatzea, bai eta kapitalizazio ertaineko enpresa txikien kategoria berri bat sortzea ere, eskakizun egokietekin. Beste tresna batzuek InvestEU programa eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa gauzatzea erraztuko dute. Neurri horiek guztiek administrazio-kargak gutxienez % 25 murrizteko helburua lortzen lagunduko dute, eta gutxienez % 35 ETEen kasuan.

[Informazio gehiago](#)



Gizarte super zaharkituek pentsioetan duten eragina

Munduko Ekonomia Foroak mundu mailako arriskuak aztertu ditu, eta biztanleriaren zahartzea epe luzerako arrisku nagusien artean kokatu du. Ildo horretan, atal espezifiko bat eskaini die gizarte super zahartuei, eta arreta pentsioen eremuan jarri du, biztanleriaren zahartzearen eragina nabarmenduz. Gaur egungo pentsio-sistemak demografia gazteago baterako diseinatu ziren (finantzatu beharreko erretiro-urte gutxiagorekin), baina mendekotasun-tasen gorakada sistema tentsionatzen ari da, eta egoera horrek belaunaldien arteko tentsioak sor ditzakeela ohartarazi du; izan ere, geroz eta gehiago lirateke pozik ez dauden langile gazteak erretiratutako pertsonen pentsioak finantzatzeko gehiago ordaindu behar izateagatik.

[Informazio gehiago](#)



EIOPA IORPS IN FOCUS REPORT 2024

Enpleguko pentsio-sistemen 2024ko balantzea Europan

Enplegu-sistemen aurreikuspen-erakundeak (IORP ingelesezko siglen arabera) 1.419 izan ziren urtearen amaieran, 2.720 bilioi euro aktiboekin eta 71,6 milioi bazkide eta onuradunekin. Sistema horiek Europako merkatu nahiko anitza osatzen dute, eta herrialde bakoitzean barneratze-maila eta garapen-maila desberdinak dituzte. Herbehereak nabarmentzen dira, sistema horien ondare osoaren erdia baino gehiago hartzen baitute (% 58,7). Inbertsioak, batez ere, inbertsio-funtsetan (% 38,4), estatu-bonuetan (% 22,9) eta akzioetan (% 17,5) egiten dira, IORPen zorroa osatuz. Azkenaldiko joerek ekarpen definituko sistemen eta IORP sustatzaile anitzen kuota handitzen ari dela adierazten dute, mugaz gaindiko IORPen murrizketaren aurrean.

[Informazio gehiago](#)

Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)